



Bujeroko tabernia

Ondo ezaguna egingo xako oñatiar askori fotografixa hau. Beste askorentzat, ostera, historixa hutsa izango da. Gauzak eta bazterrak zela aldaketan diran jeneraziño bakar batian! Herriko bidekurtzerik inportantienian, eliziaz aurrez aurre, Kale Zaharraren hasieran kokatutako etxe historiko honek hamaika bidar kanbixauko eben itxuraz gizaldittan zihar. Azkenengo obrak egin barri dittu, etxebizitzan barrukaldiak birmoldaitteko batez be. Baina orain dala berrogei urte eskas, 1960xan, argazki honetan agiri diran aurrekalde eta behekaldeak zihero barriztau zittuain sei poste dakon aterpeia arkupe bihurtu zan puntuerdiko hiru arku zabalekin, bost hutsunetako lehenengo pisuan batetik besteraiño balkoia egin euen hiru aterekin, eta bigarrenian be bost leixoren lekuan hiru bakarrik geratu ziran. Dana dala, orduan bota zanak be ez eukan larrogei urte besterik, 1880xan **Santiago Bergarajauregik** eragindako obria zan-eta.

Fan zan gizaldixaren akaberan jasotako etxiaren beheko partian taberna, jatetxe eta ostatu famaua euki euen gerra aurretik Bergarajauregitarrak, *Fonda del Comercio* izenekua, hain zuzen. Gerra ostian **Faustino Intza Txaiñaren** ardurapeian egon zan urte batzuetan eta azkenian **Liborio Lizarralde** taxistiak hartu eben Bar Restaurante *Izarra* izenarekin, 1960ko obren ondoren, *Banco de Vizcayaren* sukursala jarri euen arte. Baiña sasue batian sarrera estu samarra eukalako-edo, *Bujero* ezizena asmau otzan baten batek eta horixe izan zan erabillixena herritarren artian. Puntu onian eguelako —Zazpibidetako bidekurtzian, parrokiara aurrian, estaziñotik be hurrian, Arantzazurako autobusen urteixera-lekuan—, sartu-urten haundiko tabernia eta ostatua izan zan irauñ eben denboran.

Esan daigun, azkenik, etxe honen zati batek aspaldiko aztarranak gordeten dittuala oraindiko garai batian *Oñatiarraneko* administraziñua eta orain *Eliz-aurre* kafeterixia daguen eraikuntzan tankera gotikua dakoin atia eta bi leixo txiki ikusi geinke kanpoko aldetik gaur egun; eta barruan be, banku aldera emuten dauen horman, beste ate gotiko bat dago. *Astorkitza* etxiarenak izango ziran leixo-atiok, XV-XVI. mendeko eraikuntza batenak. Gerora beste etxe bat erantsiko xakon jatorrizkuari, bixak behebarua Kale Zahar aldera eukailla. Azken etxe hau *Erderena* izenez ezagutu zan fan zan gizaldixan.

J. E.

Fotografixa *Auskalo* aldizkarixak eta *Oñatiko Argazki Alkartiak* ataratako liburuskatik hartu dogu eta argibidiak Xabier Zelaia eta Milagros Letamendiri zor xangu.

BATYAK, S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa • Industrialdea • 18 Posta Kutxatila
Tfnoa: 78 11 15 Telefaxa: 78 32 63 • OÑATI (Gipuzkoa)

**ZUBI
LAST S.L.**



LEIHO ISOLAGARRIAK
• PVC alemaniar sistema
• Aluminio Termikoa

Zubillaga industrialdea
Tfnoa: 71 61 89 OÑATI